



ONDARROAKO UDALA

KAMIÑALDE MENDI HEGALA JAUSTEAREN ONDORIOZ GERTATU ZEN HONDAMENDI EGOERAK SORRARAZITAKO PREMIAK ATENDITZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA

Kamiñaldeko mendi magala jaustean emergentziako egoera bat sortu zen eta horrek intentsitate ezberdinetako afekzioak eragin zituen. Lehenengo eta behin, geologia emergentzia bat sortu zen, hegala egonkortzea exijitzen zuena luizirik gerta ez zedin eta San Ignazioko etxeak amildu ez zitezen. Bigarrenik, fatxadak eta etxebizitzetako komunikazio-elementuak lehengoratu behar ziren, bizilagunek etxeak okupatu eta bertara itzuli ahal izateko. Hirugarrenik, kalte gehien izan zituzten etxebizitzetako barneko elementuetan eragin beharra egon zen (hormak, zoruak, eta premiazko beharrianetako tresneria), lur jausien eta egonkortzeko obren eraginez harriak eta lurra sartu zirelako bertara.

Deialdi hau dator, hain zuzen, hirugarren maila horri erantzutera eta diruz lagundu nahi ditu hala etxebizitza barruan halabeharrez eta ezinbestean egindako obrak nola premiazko beharrianak asetzeko etxetresna elektrikoak berriz jartzea, biak ala biak nahitaezkoak baldin badira etxebizitzetara sartu ahal izateko. Onuradunak izango dira, beraz, mendi hegala jausi izanaren eta ondoren hura egonkortzeko lanaren ondorioz etxebizitza barruan kalteak izan dituzten pertsonak.

Hala ere, Ondarroako Udalak deialdia egin eta diru-laguntzak eman egingo baditu ere, ez du esan nahi bere gain hartzen duenik lur jausi horrekiko ezelako erantzukizunik, hori argitzeke baitago. Ondarroako Udalak dagokion moduan jokatu du behin lur jausia zeren ondorioz gertatu den zehazten denean. Deialdiaren zergatia da Udalak ikusi duela ezinbestezkoa dela bermatzea pertsona horiek, alegia, behar diren baldintzak betetzen ez dituzten etxeak dituzten pertsona horiek ahal den arinen bueltatu ahal izatea beraien etxebizitzetara gizarte larrialdi baten testuinguruan, gorago azaldu bezala.

LEHEN OINARRIA.- DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA ETA IZAERA



ONDARROAKO UDALA

Deialdi honek garatzen ditu Diru-laguntzak Emateko Erregimena Arautzen duen Ordenantza Nagusiaren oinarriak eta, udal aurrekontuko kredituen kargura, xede honekin egina da: konpontzea Kamiñaldeko mendi magaleko lur jausiaren ondorioz kaltetu diren ohiko altzari arruntak eta funtzionalak, alegia, beharrezkoak diren horiek erabilgarri izateko eta etxebizitzak okupatzeko. Kanpo geratzen dira berariaz luxuzko ondasunak.

Laguntza hauek izaera subsidiarioa izango dute eraginpeko erakunde onuradun izan daitezkeen kalteen bestelako estaldura sistemarekiko, publikoak edo pribatuak izan, nazio zein nazioarte mailakoak; betiere, aipatu sistema horiek eragindako kalte guztiak estaltzen ez badituzte.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste sistema publiko edo pribatuak, estatukoak zein nazioarte mailakoak helburu bererako eman ditzaketen diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin; betiere, eragindako kalteak izan duen balioaren mugaraino.

Legezketasun, ekonomia, bizkortasun eta eraginkortasun printzipioak izango dituzte abiapuntu honako neurri hauek, bai eta Administrazio publikoen oinarrizko laguntzaren printzipioa ere; nolana ere, horrek ez du, inolaz ere, inplizituki ekarriko Ondarroako Udalak eragin horiekiko erantzukizuna aitortzen duenik eta, era berean, neurriok hartzeak ez du esan nahi dagozkion kalte-ordainen zenbatekoak erreklamatzeko eskubideari kalte egin behar dionik, bere eskubidea baita hori.

BIGARREN OINARRIA.- ONURADUNAK

1. San Ignazio kaleko 40 A- B- C, 42 A- B, 44 A-B eta 46 A-B zenbakietan kokatutako etxebizitzaren legezko okupatzaileak izango dira laguntza hauen onuradunak, baldin eta "Kamiñaldeko" mendi magala jaustearen ondorioz euren ondasunetan kalteak jasan badituzte eta honako egoera hauek gertatu baldin badira:

- a) Familia unitateak edo elkarbizitza unitate ekonomikokoak, egiaztatzen dutenak kalte materialak izan direla ohiko altzari arrunt eta funtzionaletan, eta barneko beste elementuetan, baldin eta etxebizitzak erabilgarri izateko eta okupatzeko beharrezkoak badira.



ONDARROAKO UDALA

- b) Kalteak izan behar dira Kamiñaldeko magaletik eroritako harriak, lurra edo beste elementu batzuk higiezin horietara sartzearen ondorio zuzena.
2. Onuradun izan ahalko dira diru-laguntza emateko oinarria diren egoeretan dauden pertsonak edo deialdian aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen zaienak.

HIRUGARREN OINARRIA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

1. Diru-laguntza eman ahal izango da kasu hauetan:
 - a) Ohiko etxebizitzaren egiturari eragiten ez dioten kalte ez hain larriak, beti ere bertan bizi den familia unitateko kideren bat, etxebizitza horren posesio titulu juridikoaren arabera derrigortuta balego legalki sortutako kalteen kostu ekonomikoa bere gain hartzera.
 - b) Ohiko etxebizitzan, egintzen eraginez, suntsitu edo kaltetu diren ohiko altzari arrunt eta funtzionalengatik, alegia, erabilgarri izateko eta etxebizitzak bizitzeko moduko izateko beharrezkoak diren horiengatik. Hauen artekoak dira zehazki garbigailu, hozkailu, ohe eta arropa armairuak.
2. Deialdi honetan aurreikusi diren laguntzei dagokienean, aipatu den gertakari katastrofikoaren ondorio zuzen eta erabakigarrian gertatu diren kalteak; harreman kausala behar bezala kreditatu beharko da.
3. Ohiko etxebizitzatzat hartuko da elkarbizitza edo familia unitatearen etxebizitza efektibo, jarrai eta iraunkorra dena.

LAUGARREN OINARRIA.- EMATEKO PROZEDURA

1. Emateko prozedura ondoko hauetan ezarritakoaren arabera izango da: Diru-laguntzak Arautzeko Ordenantza (aplikagarriak diren oinarrizko izaerako xedapenen kaltetan izan gabe); 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru laguntzen erregimena arautzen duena eta bere Araudia, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez uztailaren 21ean onetsia, baita administrazio zuzenbideko gainerako arauak ere. Hauek aplikatzen ez direnean, Zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.



ONDARROAKO UDALA

2. Deialdi honen bitartez eta publizitate, gardentasun, objetibotasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioei jarraituz emango dira diru-laguntza hauek.

3. Lehiakortasuneko konkurrentzia erregimenaren pean emango dira diru-laguntzak.

Edozelan ere, diru-laguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuak emaniko laguntza edo diru-laguntza batekin batuta– Eranskinetako moduluak balioa baino handiagoa.

Diru-laguntza emateko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak onartutako deialdi publikoaren bitartez, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 20.8 artikuluan xedatutako prozedurari jarraituz.

4. Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak honakoak dira:

a) Lehenik 3. oinarriko 1 puntuaren a) apartatuan jasotzen diren gastuak lagunduko dira diruz. Diruz lagundu daitekeen gastu guztiari aurre egiteko adinako kontsignaziorik ez balego, banatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko hiruko erregela aplikatuko da.

b) Ondoren, eta kontsignaziorik geratuko balitz, Hirugarren oinarriko 1 puntuaren b) puntuko gastuak lagunduko dira diruz. Diruz lagundu daitekeen gastu guztiari aurre egiteko adinako kontsignaziorik ez balego, banatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko hiruko erregela aplikatuko da.

BOSGARREN OINARRIA.- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN LAGUNTZA

Ondarroako Udalak lankidetzak hitzarmenak egin ahal izango ditu kaltetutako sektorean eskumenak dituzten beste Administrazio Publikoekin, diru-laguntzak emateko arautegian aurreikusitako neurriak hobeto aplikatzeko egokiak badira.

SEIGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.



ONDARROAKO UDALA

Eskabideak aurkeztuko dira deialdi honen eranskinean agertzen den eredu normalizatua beteta. Eskabideok Erregistroko Arreta Bulegoan aurkeztu ahal izango dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 16 artikuluan jasotako edozein eratan; hamabost eguneko epea izango da horretarako, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Eskabidearekin batera aurkeztuko dira bai deialdi honetan eskatutako agiriak bai indarrean dagoen legeriak eskatutakoak.

Laguntza-eskatzaileek eskatutako dokumentazioa abian den urtearen barruan aurkeztu badute, erantzukizunpeko adierazpen batekin ordeztu beharko dute adierazteko dokumentazioa indarrean dagoela eskaera egiten den momentuan, hori guztia, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 69. artikuluan eta Ondarroako Udaleko Diru Laguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraituta.

Aurreikusitako laguntzen berezitasuna kontuan izanda, onuradunek, salbuespena eginez, ez dituzte bete beharrik izango Diru-laguntza Orokorrei buruzko 38/2003 legearen 13.2 artikuluan araututako baldintzak.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- PROZEDURAREN HASIERA

1. Bigarren oinarrian jasotako onuradunek eskatuta hasiko da prozedura. Ondarroako Udaleko Ongizate Sailak aurkeztutako eskabideak aztertu, eta betekizun formalak bete direla eta nahitaezko agiriak aurkeztu direla egiaztatuko du.
2. Horrela ez bada, errekerimendua egingo zaio interesatuari akatsak zuzendu ditzan edo falta diren agiriak ekar ditzan 10 eguneko epean. Adieraziko zaio, halaber, esandakoa betetzen ez badu eskabideari uko egin diola ulertuko dela; horretarako, dagokion organo eskudunak ebazpena eman beharko du aurretik.
3. Eskabidearekin batera aurkeztuko dira kalteak jasan dituzten ondasunen fakturak edo peritu baten txostena, kalte horiek nolakoak izan diren eta horien balorazioa jasoko dituen. Peritu baten txostena aurkeztuz gero, bertan jaso beharko da, gutxienez, kaltetutako ondasunen zerrenda bat, diru-laguntza jaso dezaketen ondasun horiena, eta zein den



ONDARROAKO UDALA

eragindako kaltearen diru kopurua, guztira, ondasun bakoitzeko kaltea zein den adierazi beharrik gabe.

4. Baldin eta eskatutako laguntzaren xedea deialdi honetan araututako oinarrien eremutik kanpo balego, erabat, Ondarroako Udalak eskabidea bidaliko lioke administrazio eskudunari, gaian eskumena duen horri eta hori egin izana jakinaraziko lioke interesatuari.

BEDERATZIGARREN OINARRIA.- INSTRUKZIOA ETA EBALUAZIOA.

1. Ondarroako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek bere 14.1 artikuluan ezartzen duena betez, Udal honetako Ongizate sailari dagokio deialdi honen espedientea tramitatzearen ardura.

2. Aipatutako Ordenantza Orokorren 14.2 artikuluan jasotzen den moduan egingo du eskariaren balorazioa espedientearen instrukzioaz arduratzen den pertsonak.

3. Hirugarren oinarrian azaldutako eta kreditatutako kalte guztiak estaltzea da diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko irizpidea, beti ere kontsignazioak horretarako ematen duen neurrian. Kontsignazioa ez bada nahikoa, Laugarren oinarriko 4. puntuan ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

HAMARGARREN OINARRIA.- EBAZPENA

Ongizate Sailak formulatutako behin betiko proposamena ikusita, Ondarroako Udalak eskabideen onarpena erabakiko du, arrazoituta. Erregistro Orokorrean sartzen diren unetik HIRU (3) HILABETEKO epean hartuko du erabaki, Alkatezaren Ebazpen bidez, eta gero eskatutako diru-laguntzak emateko proposamena egingo du. Epe hori igarota, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabidea ukatutzat joko da, administrazioaren isilbidez; hala ere, administrazioak ebatzi beharra dauka espresuki prozedura honetan. Kasu bietan, legez ezarritako errekursoak jarri ahal izango dira.

Emandako diru laguntzen publizitateari dagokionez Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18. artikuluan ezarritako araubidea beteko da.



ONDARROAKO UDALA

Udalaren webgunearen bidez emango da Diru laguntzen Datu Base Nazionaleko edukiei buruzko informazioa, baita Udalak interesdunentzat interesgarriak izan daitezkeela uste duen beste eduki batzuk ere.

HAMAIKAGARREN OINARRIA.- EBAZPENA ALDATZEA.

Diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta diru-laguntza ematean kontuan hartutako baldintzetan ezer aldatu baldin bada eta bestelako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik jaso bada. Halakoetan, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 19.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera arautegi arautzaileak xedatutakoa egingo da. Emandako diru laguntzen zenbatekoa ere aldatu ahal izango da, ordainduta badaude ere, baldin eta diru-laguntza jasotzeko baldintzetan ezer aldatu bada edo helburu berarekin bestelako ekarpenik jaso bada eta horiek denek batera eragindako kaltearen balio gainditzen badute.

HAMABIGARREN OINARRIA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.

1. Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzularaztea eta berandutza interesak eskatzea, diru-laguntza ordaindu denetik, kasu batzuetan, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan ezarritako kasuetan, alegia.
2. Ondorio horietarako, Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, II Tituluan jasotako xedapenak aplikatuko dira, bereziki itzultze prozeduraren tramitazioari eta itzulketa praktikatzeko edo likidatzeko Administrazioaren eskubidearen preskripzio epeari dagokionez.
3. Halaber, eta diru-laguntzaren itzulketa gorabehera, jokabide horiek arau hauste administratiboa izan badira, Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, ezarritakoa aplikatuko da, dagozkion zehapenak ezartzeari dagokionez.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA.- LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

1. Kasu honetan, diru-laguntza ematea zerk eragin duen aski ezaguna denez gero ez da beharrezkoa izango eskatzaileei eskatzea justifikatzeko egoera hori inolako egiaztagiriren



ONDARROAKO UDALA

bidez; hori egiaztatzeko ezar litezkeen kontrolen kaltetan izan gabe. Hala ere, diruz lagungarriak diren gastuak egiaztatu beharko dira Ondarroako Udaleko Diru Laguntzen Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan eta indarrean dagoen gainerako araudiaren arabera.

2. Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen ondorioetarako, alegia, ohiko etxebizitza eta premia biziko etxeko tresnetarako laguntzetarako, diruz lagunduko dira soilik gertakizun katastrofikoak –kalteak berari egotzi zaizkionak– zuzenean eta modu erabakigarrian eragindako kalteak; ondorio horietarako, kausa harremana behar bezala egiaztatuta geratu beharko da, salbu eta konfirmazio hori aurretiaz behar bezala egin bada.

3. Diruz lagunduko dira soilik etxea edo bizitoki diren etxebizitzan bertan dauden kalteak; hortaz, kanpoan geratuko dira beste dependentziak edo atxikiak dagokion etxebizitza dagoen higiezinaren zati bat badira ere, baldin eta bizitokiak ez badira, esaterako: garajeak, biltegi edo trasteleku gisa erabiltzeko estalpeak, nekazaritza edo abeltzaintzako erabilera duten espazioak, eta antzeko beste batzuk.

HAMALAU GARREN OINARRIA.- ORDAINTZEKO PROZEDURA

Oro har, ordainketa Ondarroako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 20. artikuluan ezarritako moduan egingo da.

Diru-laguntza osoa edo zati bat kobratzeko eskubidea galdu egingo da, baldin eta justifikaziorik egiten ez bada edo Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kausaren bat agertzen bada.

15.ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

Arau hausteen eta aplika daitezkeen zigorren erregimena Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV tituluaren ezarritakoa izango da.

Diru laguntzen arloan zigorrak administrazio espediente bidez jarriko dira; bertan, beti, pertsona edo erakunde interesatuari audientzia emango zaio dagokion erabakia argitaratu aurretik, eta izapide hori egingo da Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, III. Kapituluaren xedatutakoari jarraituta.



ONDARROAKO UDALA

Zehatzeko ahalmenaren egikaritzea arautzen duen estatu mailako arautegiak arautuko du aurreko puntuan adierazi den zehatze espedientea, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren beraren araudian jasota dauden berezitasunekin.

Ondarroa, 2018ko urriaren 3a

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga - Alkatea